

GIZA TALDEA

2023ko ekitaldia bukatutakoan, Iruñerriko Mankomunitateak 541 langile zituen, hau da, aurreko urtean baino 22 langile gehiago zituen. Gure erakundeko langileak 12 lan-zentrotan aritzen dira lanean, Iruñerriko Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuek instalazioak eremu geografiko jakin batzuetan kokatzea eskatzen dutelako. Nabarmentzekoa da 2023aren amaieran Chinchilla Jeneralaren, Julián Arteaga eta Navas de Tolosa kaleetako langileak Mankomunitatearen egoitza berrira lekualdatzea hasi zela, Iruñeko Aduanako Zokoa kalearen 12.era.

Lantokia	Jarduera	Pertsona-kopurua									
		2019		2020		2021		2022		2023	
Urtea		G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Sexua											
Bulegoak											
Chinchilla Jeneralaren kalea, 7. Iruñea Julián Arteaga kalea, 1. Iruñea	Zerbitzu zentralak eta instituzionalak	99	76	94	78	93	82	98	83		
Herritarren Arretarako Zerbitzua										106	113
Navas de Tolosa kalea, 29. Iruñea	Bezeroei arreta ematea telefonoz, aurrez aurre eta idatziz	3	25	3	27	3	27	3	29		
Edateko uren araztegiak											
Urtasun, Egillor eta Tiebas	Eugiko urtegiko, Artetako iturburuko eta Itoiz-Nafarroako Ubideko ura tratatu eta edateko on bihurtzea	42	7	42	7	44	8	49	7	51	7
Sareen eta instalazioen mantentze-tailerra											
Agustindarren industrialdea. Iruñea	Ura banatzeko sareen eta instalazioen mantentze-lanen zerbitzuak. Biltegia	89	8	84	9	83	10	84	9	86	11
Hondakin Uren Araztegia (HUA)											
Arazuri	Hondakin-uren arazketa	39	15	40	14	38	16	42	17	42	19
Hiri Hondakinak Tratatze Zentroa (HHTZ)											
Gongora	Hiri-hondakinen tratamendua	67	12	68	12	72	10	78	12	82	17
Garbigunea											
Agustindarren industrialdea + Morea merkataritza-zentroa + Burlata	Etxebizitzetako hondakin berezien bilketa	6	3	6	3	5	3	4	4	3	4
Guztirako partzialak		345	146	337	150	338	156	358	161	370	171
Guztira		491		487		494		519		541	

Plantillaren ezaugarriei dagokienez, % 68,39 gizonak dira eta % 31,60 emakumeak, aurreko urteko osaeraren antzera.

Kontratatzeko finko eta mugagabearen politikaren alde egiten du enpresak, plan estrategikoen garapena eraginkorra izan dadin, pertsonak ematen duten ezagutza eta kudeaketarako gaitasuna barne hartuta. Urtearen bukaeran, langileen % 79,67k kontratu finko eta mugagabea zuten. Dena dela, aldi baterako kontratazioa beharrezkoa da zenbait kasutan, erretiro partzialak eta aurreratuak ordezkatzeko. Gainerako aldi baterako kontratazioak unean uneko beharrei erantzuteko egiten dira, hauei esaterako: absentismoa, proiektu zenbaiten garapena edo lan-eskaera handiak. Irizpide hori aintzat hartuta, langileen % 20,33k aldi baterako kontratua zuten. 2023an, ohiz kanpoko deialdiak amaitu ziren, 20/2021 Legearen babesean, egiturazko aldi baterako enplegua egonkortzeko helburuarekin.

Plantillaren osaera, kontratu-motaren arabera

Urtea	2019		2020		2021		2022		2023	
Sexua	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Langile finkoak	288	132	272	132	263	132	271	134	290	141
Aldi baterako langileak	57	14	65	18	75	24	87	27	80	30
Guztira	345	146	337	150	338	156	358	161	370	171

Plantillaren datuak, antzintasunaren eta batez besteko adinaren arabera

Urtea	2019			2020			2021			2022			2023		
Sexua	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste
Batez besteko antzintasuna enpresan	16,77	18,0	17,0	16,75	18,1	17,17	16,44	18,38	17,05	16,12	18,8	16,95	15,74	18,43	16,59
Batez besteko adina	50,19	48,0	50,0	50,4	48,8	49,92	50,2	49,53	49,99	50,3	50,45	50,35	50,49	50,57	50,52

Batez besteko adina 50,52 urtekoa da eta 16,59 urteko antzintasuna dute batez beste erakundean.

Sexuaren arabera, gizonen kasuan, batez besteko antzintasuna 15,74 urtekoa da eta batez besteko adina 50,49 urtekoa. Emakumeen kasuan, batez besteko antzintasuna 18,43 urtekoa da eta batez besteko adina 50,57 urtekoa.

Plantillaren osaera, talde profesionalaren arabera

IZSAk hitzarmen kolektiboan 4 talde profesional ditu ezarrita: espezialistak, profesionalak, teknikariak eta tituludunak edo antzekoak. Banaketa hau da:

Urtea	2019		2020		2021		2022		2023	
Sexua	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Espezialista	92	15	93	17	93	17	95	19	96	25
Profesionala	142	74	139	75	140	78	147	83	141	84
Teknikariak	60	26	55	25	55	28	61	26	81	26
Tituluduna edo antzekoa	51	31	50	33	50	33	55	33	52	33
Guztira	345	146	337	150	338	156	358	161	370	171

Langileen kudeaketa administratiboak bermatzen du enpresaren eta langileen arteko harremanak egokitzea legezko eta ohiko araudiari, besteak beste, gai hauetan: kontratazioa, eskubideen eta betebeharren arteko oreka, lanaren banaketa edo honen ordaina... Legearekin bat datorren kudeaketaren aldeko gehieneko begiruneaz gain, beste xede bat daukagu: erakundeko pertsonen gehieneko gogobetetzea lortzea alderdi hauen ezagutzaren eta inplikazioaren bitartez.

Absentismoari buruzko informazioa

	2019	2020	2021	2022	2023
Hitzartutako lanaldi guztiaren gaineko portzentajea	6,73	8,62	7,18	8,15	9,54
Gaixotasunek eta istripuek eragindako portzentajea	5,76	7,44	6,35	7,13	7,95
Haurdunaldiek eta amatasunak eragindako portzentajea	0,26	0,63	0,34	0,40	0,85
Lan-hitzarmeneko baimenek eragindako portzentajea	0,68	0,42	0,34	0,47	0,60
Maiztasuna: kasu-kopurua, batez besteko langile-kopurua kontuan hartuta	3,26	2,43	0,88	0,53	1,83
Iraupena: ordu-kopurua, kasu guztiak kontuan hartuta	32,88	55,73	38,18	187,35	85,79
Lanaldia	1.592	1.592	1.592	1.592	1.592

Aparteko orduei buruzko informazioa

	2019	2020	2021	2022	2023
Aparteko orduak, guztira	494,10	380,73	504,84	702,96	910,43

Aparteko orduen portzentajea, hitzartutako lanaldia kontuan hartuta	0,31	0,24	0,32	0,44	0,57
Aparteko orduak, langileen batezbestekoa kontuan hartuta	0,99	0,71	1,01	1,43	1,82